



azpeitiko  
**ikastola**

ikasberri koop.e. ikastolenelkart



**IKASTOLA PROIEKTUA**

## **AZPEITIKO IKASTOLA IKASBERRI KOOPERATIBA ELKARTEA**

- ZUZENBIDEA : Loiolako Inazio hiribidea, 26
- TELEFONOA : (943) 151246
- FAXA: (943)151776
- POSTA ELEKOTRONIKOA : [ikasberri@azpeitikoikastola.eus](mailto:ikasberri@azpeitikoikastola.eus)
- WEB ORRIA: [www.azpeitikoikastola.eus](http://www.azpeitikoikastola.eus)

## **1. SARRERA**

## **2. EGOERA ETA ERRONKAK**

## **3. HEZKUNTZA PROIEKTUA**

### **3.1. \_\_NORTASUNA ETA EZAUGARRIAK**

3.1.1... Ikastolaren izaera

3.1.2 ... Curriculumaren printzipioak

3.1.3 ... Antolakuntza-egituraren printzipioak

### **3.2. \_\_HEZKUNTZA EREDUA**

3.2.1 ... Ikaslearen irteera profil orokorra

3.2.2 ... Irakaslearen profil orokorra

3.2.3 ... Familia eta gizarte hezitzailearen eragile eredia

### **3.3. \_\_ANTOLAKETA ETA KUDEAKETA EREDUA**

3.3.1 ... Gobernu egitura

3.3.2 ... Funtzionamendu egitura

## **4. CURRICULUM PROIEKTUA**

### **4.1. \_\_IKASLEAREN IRTEERA PROFIL ESPEZIFIKOA**

### **4.2. \_\_IRAKASLEAREN PROFIL ESPEZIFIKOA**

### **4.3. \_\_FAMILIA ETA GIZARTE HEZITZAILEAREN PROFILA**

## **5. ANTOLAKETA PROIEKTUA**

## **6. PLAN ESTRATEGIKOA**

## **7. URTEKO PLANA ETA MEMORIA**

# 1. SARRERA

Dokumentu honek, Azpeitiko ikastolako hezkuntza proiektua, datozen urteetarako proposatzen diren erronkak eta hauei aurre egiteko bideak jasotzea du helburu.

**Azpeitiko Ikastola Ikasberri Kooperatiba Elkartea**, herri onurako irakaskuntzako sozietate kooperatiba bat da.

**Ikastolaren xede nagusia, pertsonak bizitzarako heztea da. Izateko heztea.** Ikasleak beren garapen integralaren bidean subjektu aktiboak izanik, Ikastolan, berezkoak dituzten gaitasun pertsonal eta sozialak indartu nahi ditugu, euren potentzialtasuna modu autonomo batean garatzeko. Zoriontasuna helburu.

Urola bailaran herri ekimenaren bidez sortutako irabazi asmorik gabeko **hezkuntzarako kooperatiba** bat osatzen dugu, **euskalduna**, anitza eta garaira egokitua, non, langileen etengabeko prestakuntzaren bitartez, kooperatibako kideen auzolanaren laguntzaz eta baliabideen kudeaketa eraginkorrez, pertsonak osotasunean bizitzarako hezten diren.

## 2. EGOERA ETA ERRONKAK

Azpeitiko Ikastola Ikasberri Kooperatiba Elkarte, bailarako ikastola da. Euskara eta Euskal kulturaren oinarrituz ikasleen beharrei egokitutako 0-18 hezkuntza ibilbidea eskaintzen du.

Herritik eta herriarentzat sortutako hezkuntza eredu propioa, garaira egokitua eta aktiboa da ikastolarena.

### AZPEITIKO IKASTOLAREN HISTORIA LABURRA



## IKASTOLAREN ERRONKAK

Proiektua gauzatzeko, kooperatiba egitura duen hezkuntza komunitate parte hartzailea da Azpeitiko Ikastola. Hauek dira bere erronka nagusiak.

- Hezkuntza integralaren bidean, Ikaslearen garapenaren arabera, etapa bakoitzean dituen beharretara egokituko den **hezkuntza eredu propio bat** osatzea.
- Ikasle guztientzako hezkuntza eredu osatzea. **Aniztasunari** modu egokian erantzungo dion hezkuntza eredu hain zuzen.
- Familiak ikastolarekin batera, hezkuntza ereduaren definizioan naiz prozesuan aktiboki **parte hartzea**.
- **Kooperatiba** izaera. Hezkuntza komunitate osoaren parte hartze zuzena bultzatzea ikastolako esparru guztietan.
- **Herrigintzan** mugimendu aktibo izaten jarraitzea, gure hizkuntza, gure kultura eta gure izaera zabalduz.
- Behar berriei erantzuna emanaz hezkuntza berrikuntza beti presente izatea, **izaera berritzailea** aktibo izatea
- Ikastola **proiektua** **bailarara** zabaltzea, bailarako beharrei erantzutea

Era berean, Azpeitiko ikastolak, euskal herri osoko beste ikastolekin batera **Euskal Herriko Ikastolak Europa Kooperatiba elkarte**a (EHI) osatzen dugunez , taldeko beste ikastolekin honako izaera komuna eta erronkak partekatzen ditugu:

- Ikastolak **hezkuntza sare** eratua dugu, proiektu komuna garatzeko, ikastola bakoitzari bere berariazko proiektua garatzen laguntzeko, ikastolak talde edo kolektibo gisa ordezkatzeko eta hezkuntza euskalduna ikastolen esparrutik harago eragiteko.
- Ikastolen taldeak, **Euskararen Herrialdearekin**, identifikatzen du bere jardura esparrua eta hezkuntza komunitate orok bere kultura ondarea **muga administratiboetatik harago** transmititu ahal izateko irakaskuntza antolatze duen eskubidearen arabera jarduten du.
- Ikastolen taldea edo kolektiboa, **lankidetzaren bidez kudeatutako antolakuntza** da eta bere berariazko joko arauak ditu, ikastola bakoitzeko hezkuntza komunitateak bultzatutako elkarketa eta ekimen bidezko kultura baten fruitu dena, hezkuntza proiektu komunarekin konprometituta dauden kolektiboko profesionalek bermatu eta bultzatua.
- Ikastolen kolektiboa, duen **izaera herritarra** dela bide, subjektu eraginkor eta lankide da Euskal Herriaren garapenean. Euskararen garapenean eta bere kulturarenean, beste gizarte, hezkuntza eta kultura eragile batzuekin batera dihardu eta bere lehentasunezko egitarauak, Euskal Curriculumaren definizioa eta aplikazioa, Euskal Eskola eta Euskal Unibertsitatea dira.
- Ikastolen taldeak edo kolektiboak, **oinarrizko curriculum komuna partekatzen dugu** eta, curriculum horrek, bere hezkuntza ereduari eta euskal curriculum espezifikoari dagozkion edukiak islatzen dituzten adostutako lerro nagusiak ditu bere baitan.
- Ikastolen hezkuntza sareak, taldeko kide diren ikastola guztientzako **zerbitzu kolektibo multzoa** eskaintzen du, momentuko beharrei erantzuteko.

### 3. HEZKUNTZA PROIEKTUA

Hezkuntza Proiektua, Ikastola proiektua gauzatzeko tresna da. Ikastola proiektuan adierazitako erronkei erantzuteko bidean, jarraituko diren printzipio eta ildoak adierazten dituen dokumentua hain zuzen. Nolabait, alderdi guztietan (pedagogikoa nahiz kudeaketa arloa ) **Ikastolaren bizitza gidatzen duen tresna da.**

Hezkuntza proiektua, hezkuntzako esku-hartze prozesua koherentziaz zuzentzea ahalbideratzen duen proposamen integrala da. Proiektu ezberdinei gorputza, koherentzia eta orientazioa ematen dien agiria hain zuzen.

Bertan, ikastolaren jardun osoaren ildo nagusiak jasoko dira eta hauek lortzeko egitura eta funtzionamendu osoaren (proiektu eta azpi-proiektuak) deskribapena eta prozedura nahiz ebaluazioa eta hobekuntza sistemak zehaztu eta planifikatuko ditu.

Hezkuntza proiektuaren funtzio edo eginkizun nagusiak honakoak dira:

- Ikastolak dituen hezkuntza asmoak zehaztea.
- Pedagogia praktika gidatzea eta orientatzea.
- Haur eta gazteen hezkuntzan eragile guztion koherentziarako irizpide izatea.

Hezkuntza Proiektua hezkuntza komunitateko kideen (ikastolako guraso, ikasle, eta langileen) iritzi eta esperientzian oinarritzen da. Azkenean, Hezkuntza Proiektu honek “Azpeitiko Ikastolaren bizitza filosofia” baten isla izan behar baitu.



## 3.1. NORTASUNA ETA EZAUGARRIAK

### 3.1.1 IKASTOLAREN IZAERA

Azpeitiko ikastola, Urola bailarako hainbat familia eta langilek osatzen dugun **hezkuntza kooperatiba** bat da.

**Ikaslea ardatz** hartuta, pertsonaren **garapen integralean** laguntzea du helburu, horretarako hezkuntza zerbitzua, haur eta gazteen beharretara egokituz.

**Hezkuntza eredu propio eta berritzaile** bat dugu, **Euskaratik** abiatuz **eleaniztasunera** eta Euskal Kulturatik mundura irekiaz. Hau guztia zerbitzuaren kudeaketan familien eta langileen **parte hartze** zuzenarekin eta irakasleen etengabeko prestakuntzaz.

**Euskal Herriko Ikastolen europar kooperatiba elkarteko kide** gara, beste ikastolekin batera.

Honekin guztiarekin, gure bailaran hainbat hamarkada daramatzan ikastolen mugimenduari eutsi nahi diogu, indartu eta eguneratuz, bailarako herrietako elkarte eta eragile desberdinekin elkarlanean.

### 3.1.2 OINARRIZKO CURRICULUMAREN PRINTZIOAK

Hau da Euskal Curriculumean bizitza osorako proposatzen den hezkuntzaren xedea:



“Norberaren, gizartearen eta naturaren errealitateak kritikoki ulertzeko, horietan eraginkortasunez ekiteko eta arduraz eraldatzeko baliabideak ematean datza hezkuntzaren xedea, era horretara, pertsonak, gizabanako gisa, gizartekide eta izadi kide gisa ahalik gaitasun gehien gara ditzan”

Ikastolen elkarteko oinarrizko curriculum komunaren printzipioarekin bat eginez , gure ikastolako **oinarrizko hezkuntzaren xedea** Euskal Curriculum-ean sostengatzen da , honako ezaugarriak elkarbanatuz.

#### 1 - Hezkuntza giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen sustatzaile .

Ikastolok bat egiten dugu Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsaleko (1948) 26. artikuluekin, non pertsona orok oinarrizko ikasketak doan egiteko duen hezkuntza-eskubidea aldarrikatzen den.

Bat egiten dugu aldi berean, hezkuntzaren giza nortasuna guztiz garatzeko eta giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen errespetua indartzeko hezkuntza xedearekin, eta gurasoek lehentasunezko eskubidea dutela seme alabei emango zaien hezkuntza mota aukeratzeko eskubidearekin

## **2 - Guztiontzako eskola barne hartzailea.**

Ikastolok, egungo eta are gehiago etorkizuneko euskal gizartea kultur askotariko eta anitza dela eta izango dela aurre ikusiz, guztiontzako eskola inklusiboaren alde egiten dugu, Euskal Herriko pentsaera eta jokaera sozial, politiko, erlijioso ezberdinak integratuz eta orekatuz, hau da maila sozial eta ekonomiko ezberdinetako pertsonei irekia, aukera berdintasuna bermatzen duena, bere ikasleek Europan txertatuta eta munduarekin lotuta dagoen euskal gizarte kohesionatu batean bizitzen ikas dezaten.

## **3 - Pertsonaren eta gizartearen eredu**

Hezkuntza prozesuaren xedea, gizabanako, gizartekide eta izadi-kide gisa banaezinak diren pertsonaren dimentsioak, ahalik eta garapen maila handiena eta orekatuena erdiestea da. Bizitza osorako hezkuntzaren ikuspegi integral hori erdiesteko asmoz, ikastolok, “Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculumean” proposatzen diren Hezkuntza konpetentzia orokorrak (ikasten eta pentsatzen ikasi, komunikatzen ikasi, elkarrekin bizitzen ikasi, norbera izaten ikasti eta egiten eta ekiten ikasi) sustatzen ditugu. Hezkuntza konpetentzia orokor horiek ikas arloetan eta, oro har, bizitzako egoera guztietan uztartuz.

Oinarrizko heziketa eta bizitza osorako prestakuntzaren oinarriak finkatuko ditugu, pertsonaren garapen osoa besarkatuz, ikasleak beste prestakuntza maila batzuetarako eta lan mundurako sarbideak prestatuz, eragile ekintzaileak eta profesionalak, ekonomikoak eta sozialak izateko prestatuz, bere bizitza zentzuz bideratzeko prestatuz, eta bere etorkizuna arduraz hautatzeko prestatuz.

## 4 - Euskal Eskola

Komunitate guztien, herri guztien eginkizuna eta eskubidea da bere kulturaren dimentsio guztiak babestu, bizi, berregin eta garatzea, eta kultura horretako kideei transmititzea familiaren, eskolaren eta gainerako komunikazio moduen bidez. Ikastolen mugimenduaren sorrera eta ezaugarriak, euskara eta euskal kultura transmititzeko, garatzeko eta bultzatzeko konpromisoan oinarritzen da, beti ere irekita hurbileko eta urruneko kulturetara.

Gure ikastolak ere euskararen eta euskal kulturaren inguruan batzen den identitate euskalduna proposatzen du, eta hizkuntzen eta kulturen arteko planteamendu integratzailea sustatzen, hizkuntzen eta kulturen arteko kompetentziak osagarritzat hartuz.

Ikastola bakoitzak euskararen herrizat hartzen du Euskal Herria. Heziketa lana garatzeko orduan, ikastolak Euskaltzaindiak bezalaxe erabiltzen du Euskal Herria izena (2003), “Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa (Beherea eta Garaia) eta Zuberoak osatzen duten multzoa”

### 3.1.3 ANTOLAKUNTZA EGITURAREN PRINTZIOAK

Ikastolen Kolektiboaren antolakuntza egiturarentzat proposatzen diren printzipioekin bat eginez, Azpeitiko ikastolan, antolakuntza egituraren inguruan honako printzipioak ezarri ditugu.

#### 1. Hezkuntza komunitate gisa

- Azpeitiko Ikastolan euskarak eta euskal kulturak bat egiten duten identitate euskalduna proposatzen dugunez, kudeaketan eta antolakuntza egituraren printzipio horiekin koherente izango gara.
- Hezkuntza komunitate osoaren parte hartzea bultzatzen dugu, barne eta kanpoko komunikazio baliabideak erabiliz eta garatuz. Hezkuntza komunitatea osatzen duten kide guztien (gurasoak, langileak, ikasleak ) parte hartzea bermatuz ikastolaren kudeaketan.
- Hezkuntza komunitatean lankidetza dugu oinarri. Irakasleen artean talde lana bultzatzen da. Horrez gain, ikastolen taldeko gainerako ikastolekin elkartzen gara, hezkuntza sare bat eratzeko eta elkar sendotzeko.
- Zerbitzu publikoaren filosofiari jarraituta, ikastolak, administrazioarekin batera, oinarrizko hezkuntza jasotzeko edozein pertsonak duen eskubidea eta obligazioa eta horren doakotasuna sustatzeko antolakuntza ereduak izan behar du.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatu ahal izateko, parekidetasunaren printzipioak aintzat hartuko dira kudeaketa organoak osatzerakoan.
- Ingurumenaren arazoaz jabetuz, kontsumo arduratsua eta gizarte justuago eta ekologikoki iraunkorrago baten aldeko kudeaketa egingo da.

## **2. Kooperatiba gisa**

Azpeitiko Ikastola Ikasberri kooperatiba da, hiru bazkidetza aukera ezberdin daudelarik. Bazkide guztiek osatzen duten Batzar Nagusia da erabaki organo nagusia. Honek izendatzen du ikastola gidatzen duen Batzordea edo Artezkaritza Kontseilua. Funtzioen gida liburua dokumentuan zehaztuak daude kooperatibaren antolaketa eta funtzionamenduko xehetasunak.

- Pentsamendu kooperatiboaren ardatzak sustatuko ditugu eta sistema honen baloreen eta printzipioen garapenean konprometituta gaude.
- Eraginkortasun irizpideak erabiliko ditugu nahi ditugun emaitzak lortzeko, bai gurasoei, bai ikasleei, bai irakasleei erantzuteari dagokionez eta baita geure kudeaketa sistemari erantzuteari dagokionez ere.

## **3. Ikastolen sareko kide gisa**

Azpeitiko ikastolak, ikastolen kolektiboko gainerako ikastolekin hezkuntza sarea eratzen dugu. Sare hori egingarri da elkar sendotzeko guztion artean ezarritako elkarrekiko mendekotasun eta lankidetzak loturei esker. Ikastola bakoitzak izaera propioa du, baita Azpeitiko ikastolak ere, hori da ikastola taldearen edo kolektiboaren garapena jasagarri izateko bermerik onena. Ikastolen sareko kide garen heinean:

- Egoera desberdin eta aldakorrei malgutasunez egokituz, ikastola taldearen garapena euskarri izateko lagunduko dugu.
- Etengabe aldatzen ari den munduan jarraian ikasi eta berritzeko gai izango den eta aldaketarako, berrikuntzarako eta etengabeko hobekuntzarako prestatutako hezkuntza sarean jardungo duen egituraren aukera egiten dugu.

## 3.2. HEZKUNTZA EREDUA

*Hezkuntzaren helburua zera da: ikasleak oraingo interes eta beharrak modu egokian asebetetzeko prestatzea, eta etorkizunerako tresnak eta baliabideak ematea, bakoitzak bere bidea zentzuz aukeratu, egindako aukeren arduradun izan eta gizarteko nahiz naturako kide eta partaide aktibo bezala ahalik eta garapen maila handiena lor dezan.*

Hau gauzatzeko, ikaslearen irteera-profila diseinatu dugu, honetan oinarrituz hezkuntza eredu propioa garatzeko.

Jarraian, definitzen dira ikaslearen irteera profil orokorra, irakaslearen profil orokorra eta familia eta gizarte hezitzailearen eragile eredia .

### 3.2.1 IKASLEAREN IRTEERA PROFIL OROKORRA

Ondoren aurkezten duguna Azpeitiko Ikastola Ikasberri Koop.elk.ak definitutako ikasle profila da. Zerrendatutako ezaugarri horiek guztiak garatzea ezinbestekotzat jotzen dugu gure ikastolatik irteten diren pertsonak bizitza orekatu, osasuntsu eta zoriontsua izan dezaten; aurkituko dituzten erronka, egoera edota arazo desberdinei (lan, akademiko, sozial nahiz pertsonalei) irtenbide egokiak emanaz gizarte hobeago bat eraikitzen laguntzeko.

## **EUSKALDUNA**

Euskararekin eta euskal kulturarekin konprometitutako pertsona da, euskal kultura barneratu, baloratu, zabaldu eta inguruko kultura aniztasuna kontuan hartu eta errespetatuz, gizarte euskaldun baten alde eragile aktiboa izateko.

## **EMOZIONALA**

Norberaren emozioez jabetu, hauek identifikatu eta ulertzen dakien pertsona da, auto-ezagutza garatuz, emozio positibo zein negatiboak eraginkortasunez kudeatuz, harreman positiboak eraikiz eta zailtasunei aurre egiteko estrategiak erabiliz, bat-batean sortzen zaizkigun egoera afektiboetatik ikasi eta norbera nahiz ingurukoengan positiboki eragiteko.

## **ENPATIKOA**

Edozein egoera, arazo edo konfliktoren aurrean besteen lekuan jartzeko gaitasuna duen pertsona da, entzute aktiboa erabiliz, bestearena ulertuz, berearekin alderatuz eta hezkidetzan oinarrituz, elkarbizitza orekatu, eraikitzaile eta harmoniatsu bat lortzeko.

## **KRITIKOA**

Jasotako informazioa interpretatu, baloratu, iragazi eta honen arabera aukeratzeko gai den pertsona da, informazioa iturri ezberdinetatik jasoz, besteena errespetatuz eta balore etikoak aplikatuz, nahiz aurreko ezagutzekin alderatuz, informazioa modu egokian erabili eta norberaren iritzia osatu eta erabakiak modu arduratsuan hartzeko.

## **AUTONOMOA**

Egunero biziko dituen egoera ezberdinen aurrean, erabakiak hartu, hauekin aurrera egin eta ondorioak kudeatzeko gai den pertsona da, modu arduratsu eta eraginkorrean, jarrera baikorra erakutsiz eta bere behar, ahulezia eta indar-guneak kontuan hartuz, bizitzan zehar bere erabakiak hartu eta kontsekuentea izateko.



## **KOMUNIKATZAILEA**

Gai desberdinen inguruko azalpenak eta iritziak, nahiz bere sentimenduak ahoz, idatziz edota digitalki adierazteko eta besteengana iristeko gai den pertsona eleanitza da, euskara ardatz eta oinarri hartuta, hizkuntz eta kode desberdinak (matematikoa, artistikoa, zientifikoa,...) eraginkortasunez erabiliz, ingurukoekin interakzionatu, erlazionatu eta modu positibo eta eraikitzaile batean jarduteko.

## **SORTZAILEA**

Adierazpenera zein ekintzara bideratutako ideien eta prozesu berrien eraikuntza eta kudeaketa egiten duen pertsona da, bere gaitasunetan konfiantza edukiz, besteen ideiekin norberarena aberastuz eta originaltasunez, ideia berriak sortzeko estrategiak erabiliz, bere barne munduaren irudikapenak, errealitate baten eraldaketa edo berrikuntza proposamenak adierazi eta gauzatzeko.

## **EKINTZAILEA**

Egoera edo barne gogo baten aurrean, inizatiba hartu eta irtenbide ezberdinak planteatu eta aurrera eramaten dituen pertsona da, egoera aztertuz, ekintzak planifikatu eta gauzatzuz, hauen ondorioak ebaluatuz eta sistematikoki hobekuntzak planteatuz, bere bizitzako proiektu desberdinak gauzatzeko.

## **PARTE HARTZAILEA**

Gizarteko eremu ezberdinetako proiektuen lanketan helburu komunak lortzeko pertsona aktiboa da, bere ideiak partekatuz, besteenekin uztartuz, norbere ardurak beteaz eta besteekiko harremanak era inklusiboan bideratuz, gizartearentzat onuragarriak izango diren helburuak lortzeko.

## **OSASUNTSUA**

Ingurumenarekiko nahiz bere buruarekiko jarrera egokiak dituen pertsona da, norberaren gorputza eta sexualitatea ezagutu, onartu eta zainduz (dieta osasuntsua, jarduera fisikoa, higiena...) eta ingurumena errespetatuz, norberaren eta ingurumenaren garapen orekatu eta iraunkorra izateko.

### 3.2.2 IRAKASLEAREN PROFIL OROKORRA

Ikasleak oinarrizko konpetentziak eskuratu behar ditu amaierako profila lortu ahal izateko; hori horrela izanik, irakasle trebatuak behar dira, hezkuntza-komunitatean integratutakoak, prestakuntza pertsonal eta akademiko sendoa dutenak eta egoera sozial berriek sorrarazitako eskakizunetara egokitzeko gai direnak. Horrela, irakasleak artekari izango dira jarduera-eremu guztietan sortutako egoerak era eraginkorrean konpontzeko behar diren irakaskuntza / ikaskuntza-prozesuetan.

Ikastoletan, oinarrizko hezkuntzako irakaslearen profilean zehazten dira zein oinarrizko konpetentzia eskuratu beharko dituen irakasleak bere lanbideko hiru adarretan:

- Gurasoek, irakasleek eta ikasleek osatutako hezkuntza komunitateko kide
- bere ikasleen hezitzaile eta prestakuntzako gida den heinean, eta
- aldatzen ari den gizarte bateko kide den heinean.

#### **IKASTOLAKO IRAKASLEAREN PROFIL OROKORRA:**

Euskara denez hizkuntza nagusia eta ikuspegi eleaniztunaren ardatz, ikastolako irakasleak maila altuko hizkuntza-eskakizuna bete behar du, euskararen erabileran, gaztelaniaren erabilera eta beharrezkoa denean hirugarren hizkuntza baten erabileran ere.

Era berean, prestakuntza eta jarrera egokiak behar ditu ikasleek oinarrizko konpetentziak gara ditzaten laguntzeko, curriculumeko arloen bidez eta ikastola-bizitzatik kanpoko egoeretan eta eremuetan.

Azkenik, familien, ikasleen eta gizartearen espektatibak kontuan hartuko ditu, eta ikastola-eredua etengabe hobetzen lagunduko du.

Profil orokor honetan oinarrituko hauek lirateke profil espezifikoaren lau ardatz nagusiak:

1. Ikastola-eredua hobetzeko ideiak proposatzen ditu.
2. Menderatzen ditu ikasleari eskatzen zaizkion oinarritzko kompetentziak.
3. Ikerketa didaktiko-pedagogikoak planifikatzen eta gauzatzen ditu.
4. Gizarteko errealitate sozio-ekonomiko eta politikoak aintzat hartzen ditu, eta lankidetzan jarduten du gurasoekin, irakasleekin eta ikasleekin.

Ikastolaren titular den kooperatibak ezinbestean eskatzen ditu azken honen kudeaketan parte hartuko duten irakasleak. Kooperatibaren estatutuek bere kudeaketaren ardura bi interesen artean elkarbanatzeko nahia jasotzen dute, zerbitzuaren erabiltzaile diren gurasoen eta zerbitzua eskaintzen duten irakasle-langileen artean.

Ondorioz irakaslearen perfilean beharrezkoa litzateke kooperatibaren kudeaketak eskatzen dituen ardurak hartzeko prestutasuna. Besteak beste, kooperatibaren bazkideztan, alegia batzarrean, eta kooperatibako organo desberdinetan; artezkaritza kontseiluan, jagoletza batzordean eta errekurtsio batzordean.

Era berean ikastolaren kudeaketarako sortzen diren hainbat azpibatzerdeetan parte hartzeko jarrera aktibo bat izatea ere eskatzen du ikastolaren izaerak.

### 3.2.3 FAMILIA ETA GIZARTE HEZITZAILEAREN ERAGILE EREDUA

Ikastolako guraso izateak ikastolak eskaintzen duen hezkuntza zerbitzuaren erabiltzaile izateaz gain, ikastolaren titular den **kooperatibaren kudeaketan** gurasoen parte hartzea ezinbestekoa du. Hein batean gurasoen parte hartze honek ere ziurtatzen bai du zerbitzu horren arrakasta eta erabiltzailearen beharretara urtez urte moldatzen joateko gaitasuna.

Gurasoak ezinbestean kooperatibaren bazkide izateaz gain, bere organoetan parte hartzeko prestutasuna izatea beharrezkoa du; artezkaritza kontseiluan, jagoletza batzordean eta errekurtsio batzordean.

Aldi berean, Ikastola **proiektuaren eraikitzaile** izan behar dute gurasoek; Ikastolako hezkuntza eredia guraso eta profesionalen elkar lanean eraikiz eta ildo beretik lan eginez. Proiektuarekiko jarrera eraikitzailea izatea beharrezkoa da gurasoaren aldetik ikaslearen hezkuntza eraginkorra izan dadin.

Azkenik, gurasoak **Auzolanean parte-hartzaile** izatea bultzatuko du ikastolak; Ikastola auzolanean eraiki izan den heinean bere garapenean ere ezinbestekoa du gurasoen auzolana. Ikastolako eguneroko jardunean irakasleekin batera.

Ikastola irekia dago bestalde, **gure proiektuarekin bat egiten duten gizarte eragileekin elkarlana** egin eta bideratzera.

### 3.3. ANTOLAKETA ETA KUDEAKETA EREDUA

Ikastolaren egitura demokratikoak eta kooperatiboak eskatzen du, derrigorrez, partaidetzaren eremuak, funtzioak eta ardurak, ondo antolatzea; bestetik, saihestu behar da partaide guztiek eginkizun guztietan aritu ahal izatea. Erakunde harmonikoa eta eraginkorraren oinarritzko baldintza da hori.

Antolakuntza horren printzipio nagusiak ondorengo hauek izango lirateke:

- Ikastolak organigrama izango du ondo definitua non ondo bereziko diren kudeaketaren egitura ezberdinak.
- Ikastolaren egitura bikoitza da, hau da, Gobernu-egitura eta Funtzionamendu-egitura bereizten dira bere baitan. Funtzionamendu-egitura Gobernu-egituraren dependentzian dago baina bakoitzak badu autonomia bere funtzioen betekizunean.
- Hezkuntza Komunitateko osagileek ordezkaritza izango dute egitura ezberdinetan baina ez dituzte denetan funtzio berdinak beteko.

### 3.3.1 GOBERNU EGITURA

Bi dira Gobernu-egituraren organoak:

- a) **Batzar Orokorra:** bazkide guztien bilkura izanik, bera da gobernu-organo gorena. Bere eginkizun propioa da arlo pedagogiko nahiz ekonomiko-administratiboko gai nagusiei buruzko informazioa jaso, emendakinak proposatu eta dokumentu nagusiak onartzea.
- b) **Artezkaritza Kontseilua:** Batzarraren delegazioz, bera arduratzen da erakundea gestionatzeaz. Bazkideen artetik osatuko da. Bere eginkizuna da ikastolaren martxa bultzatzea, proiektuak osatzeko gaiak eskaintzea, funtzionamendu -egiturak lantzen dituen proiektuak jaso eta aztertzea, emendakinak proposatzea, haiek onartzea eta beren betekizuna, kontrolatuz, ziurtatzea. Beren funtzioa betetzeko osa ditzakete beharrezkoak ikusten dituen azpibatzordeak. Artezkaritza Kontseiluak bere funtzioak bete ahal izateko bi eratako azpibatzordeak aurre ikusten ditu:
  - Kooperatibaren Estatutuek seinalatzen dituztenak: Jagoletza eta Errekurtso Batzordeak.
  - Ikastolaren Gobernu-egitura osatzeak ezartzen dizkion funtzioak egoki bete ahal izateko antolatzen dituenak: Pedagogia Azpibatzordea, Ekonomia Azpibatzordea, Komunikazio eta Partaidetza Azpibatzordea.

### 3.3.2 FUNTZIONAMENDU EGITURA

Funtzionamendu egiturak bi maila ditu:

- a) **Funtzionamendu zuzendaria:** Zuzendaria da maila honetako arduraduna eta berak betetzen du bi egituren arteko zubi-lana eta, beraz, garrantzi berezia du bere izendapena. Zuzendaritzaren beste osagileek laguntzen diote lan horretan. Berak ziurtatzen du proiektu eta planen elaborazioa, Artezkaritza Kontseiluan bere onarpenerako aurkeztea, jasotako emendakinak ezartzea eta, onartuak izan ondoren, bere betekizunaz arduratzea.
- b) **Funtzionamendu operatiboa:** Ikastolaren proiektuak eta planak elaboratzen dituzte eta bere ardura da horien exekuzioa, organo ezberdinetan funtzionatzen du segun eta plana zein kolektiboari dagokion. Zerbitzuen arloa ere hartzen du bere barnean. Zuzendariaren eta zuzendaritzaren gestioaren eragile nagusiak dira.

\*\* "Funtzioen Gidaliburua" dokumentuan zehazten dira organo bakoitzaren lekua eta funtzioak.

**4. CURRICULUM PROIEKTUA**

**5 . ANTOLAKETA PROIEKTUA**

**6. PLAN ESTRATEGIKOA**

**7. URTEKO PLANA ETA MEMORIA**

Ikastola proiektua osatzen duten gainontzeko puntuak,  
txosten ezberdinetan jasoak ditugu.

Dokumentu honek zerbait bizia izan behar du, garai bakoitzean  
beharrezkoak ikusten diren aldaketetara moldatua, 4 urtetik behin  
gutxienez errebisio bat egitea beharrezkoa izango da.

Dokumentu hau, berritu eta 2017ko abenduak 19ko  
BATZAR OROKORREAN aurkeztua izan da.

